

XIII. JAGON JARDUNALDIAK: KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Kontsumoa, hizkuntza gutxiagotuen indarberitzearen perspektibatik

Erramun Baxok

Nabari da hizkuntza gutxiagotu bat indarberitzen dela bizitza sozio-ekonomikoan erabiltzen den neurrian, ekoizteko, kontsumitzeko eta gizarte zerbitzuak erabiltzeko. Gogoeta honen lehen zatian (1, 2, 3), konpara ditzagun han eta hemen kontsumoaren alorrean erabiltzen diren hizkuntza estrategia ezberdinak. Bigarren zatian (4, 5), kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubidei buruzko dekretua dela-eta, Euskal Herriko hizkuntza politikak aztertuko ditugu.

1. ZER DA HIZKUNTZA GUTXIAGOTUA?

Soziolinguistikaren aldetik, hizkuntza gutxitua da lurralde bereko beste hizkuntza indartsuago batekin borrokan dagoena. Sintomak asko daude: belau-naldi arteko jarraipena ez da segurtatua, askok ikasten badute ere gutik erabiltzen dute, hiztunen ikuspegitik ere prestigio eskasa dauka. Hots, osasun faltan hizkuntza ahulduz doa, askotan hil zorian egoterainokoa.

Gutxiengotasuna gauza erlatiboa da. Europa mailan, frantsesa ingelesa baino ahulago da. Kanadako federazioan ere bai. Baina bi kasu hauetan frantsesa ez da desagertzeko arriskuan, hizkuntza komunitatearen bizindarra handia delakotz gizarte baldintzen aldetik: demografia, egoera ekonomikoa ala sustengu politikoa kontuan hartuz. Ohargarri da hizkuntzaren osasuna lurraldearen burujabetzaren heinekoa dela. Aldiz Ipar Euskal Herrian euskara gutxiengo larrian dago, bai demografia ikusiz bai eta ere sustengu politiko eska-sarengatik. Hego Euskal Herrian euskara gutxiengoan da demolinguistikaren aldetik, baina hizkuntza erkidegoak (mintzakidegoak) badauka bizindar nahikoa, bereziki sostengu instituzionalaren aldetik.

Bi egoera soziopolitiko oso ezberdinak badira hizkuntza gutxituetan: elbakartasuna edo diglosia.

Quebecen frantsesaren egoera arriskutsua zen duela 30 urte. Frantsesdun gehienak elebakarrak ziren baina gizartean aitzinatzeko ingelesa ikasi behar zuten. Enpresa batean goi mailako zuzendariak inglofono elebakarrak ziren, langileak frantsesdun elebakarrak eta bitarteko ikuskatzaileak elebidunak ziren, enpresaren komunikazioa segurtatzeko. Halere egoeraren alde ona zen hizkuntza bere lurraldean gehiengoan segoela, hizkuntza komunitatearen bizindarra ahula bazen ere.

Askoz arriskutsuagoa da hiztun gutxiagotuen elebitasun etnikoa (William Mackey). Elebitasun etnikoa gertatzen da, lurralde batean hiztun guztiek bigarren hizkuntza bat nahitaez erabili behar dutelarik gizartean integratzeko, lan egiteko, goragoko gizarte mail batera heltzeko.

Egoera hoberenean diglosia funtzionala gertatzen da (John Ferguson). Bi hizkuntza edo gehiago lurralde berean elkarrekin iraun dezakete, batek funtzio bat betetzen duelarik besteak betetzen ez duena. Bi hizkuntzak (edo gehiago) beharrezkoak dira. Adibidez Bolikostako herritarrak ele askotakoak dira: lehen hizkuntza etnikoa da, herrian erabiltzen dena eta 20 edo 30 hizkuntza etniko badira dialektoak kontuan hartuz. Elkarrekin komunikatzeko hizkuntza komunak erabiltzen dituzte, hala nola «diula» merkataritzarako, frantsesa eskolan eta administrazio zentralarekin, arabiera meskitan.

Eremu sozioekonomikoan etnia guztiek hizkuntza bera erabili behar dute, eta hizkuntza bakoitzak badu bere alor berezia osoki mugatua. Baina hizkuntza batek bere mugak gaintzen baditu funtzio askotakoa bilakatuz, orduan diglosia menperatzailea gertatzen da. Adibidez frantsesa salerospenetan erabiltzen bada edo irrati ofiziala etxeetan sartzen delarik. Orduan hizkuntza baliagarriena menperatzaile bilakatzen da, gero eta hiztun gehiagok erabiltzen baitute, gero eta funtzio gehiago betetzeko (Joshua Fishman). Azkenean hizkuntza ahulena erredondante (soberakin) bilakatzen da «ekonomia legearen eraginez»: zertarako bi hizkuntza erabil funtzio beren betetzeko, bakar bat nahikoa delarik? Belaunaldi baten edo biren buruan hizkuntza ahulena desagertu daiteke.

Antzeko zerbait gertatu zen Ipar Euskal Herrian. Duela mende bat frantsesa eta euskara eremu ezberdinetan erabiltzen ziren: frantsesa eskolan eta soldadogoan, euskara etxean, plazan eta elizan. Baina adibidez telebista etxeetan sartu delarik konpartimentazio bat desegin da eta azkenean frantsesa komunikazio eremu guztietan zabaldu da, euskarari eremu sinbolikoak utziz. Gero modernitatearen izenean, herri hizkuntzaren transmisio naturala ahulduz joan da. Belaunaldien arteko hizkuntza jarraipena ez delarik naturalki segurtatua, instituzioen sostengua beharrezkoa da.

2. GERIZA JURIDIKOA

Hizkuntza gutxiagotuaren beste ezaugarri bat da legearen geriza behar duela bizirik irauteko. Alabaina sostengu juridikoak bizindarra ematen dio

hizkuntza komunitateari, bereziki lurraldeak legegintza eskumena duelarik. Ohargarri da autonomia handiago eta herri hizkuntzaren aldeko geriza indartsuago dela. Gainez gain konpara ditzagun Frantzia, Quebec eta Hego Euskal Herriko hizkuntza legeak.

Frantsesak Frantzian geriza juridiko biziki indartsua dauka. Europan eta mundu zabalean ingelesaren mehatxuari aurre egiteko, 1992an monoglosia (Cerquiglini) sartu da Konstituzioaren 2. artikuluan «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da». Eta 1994an Toubon legeak eman digu emandakin horren interpretazioa frantsesaren nahitezko eremuak finkatuz. Lehen artikulua: «Konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza den frantsesak Frantziaren nortasuna eta ondarea oinarritzen ditu. Ikaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da». Jarraian legearen 24 artikuluek finkatzen dute frantsesaren erabilera iragarkietan, lan munduan, kontratuetan, publikitatean, zuzenbidezko idazkietan. Dena dela 21. artikulua onartzen du eskualde hizkuntzen geriza juridikoa eta heien erabilera. Ohargarri da «ofizialtasuna» ez dagoela Frantziako hizkuntza zuzenbidean hain segur hitz horren polise-miaren beldurrez, alabaina ez dauka esanahi osoki berdina Kanadan, Europan edo Espainian.

Quebecen ere frantsesaren geriza juridikoa elebakarra da. Hizkuntza frantsesaren gutuneko lehen artikulua finkatzen du frantsesaren ofizialtasuna» (101. legea, 1977). Monoglosia juridikoak diglosia sozio-linguistikoki aurre egiten dio. Legeak «beste hizkuntza» historikoei toki bat ematen die, baina salbuespen bezala.

Alderantziz Hego Euskal Herriko hizkuntza legeen estrategia elebiduna da. Bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai eta ere Nafarroako lurralde euskaldunetan bi hizkuntza dira ofizialak, gaztelania eta euskara. Zorigaitzez, legeak ez du hizkuntzen arteko borroka trenkatzen, baretzen baizik, hizkuntza ahulenari indar pixka bat emanez. Diglosia menperatzaileak dirau eta «Euskara 21» gogoetaldiko eztabaidagai nagusi bat da. XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak definitzerakoan, erronka zailena da nola lor daiteken bi hizkuntzen arteko berdintasuna eta nola berezko hizkuntzaren bizindarrak eskatzen duen lehentasuna zain, hiztunen askatasuna errespetatuz.

Marxismoaren denboran erraten zen bezala, axeria oilategian dagoelarik ezin da aipatu ez berdintasunik ez eta ere askatasunik. Halere monoglosia ezin daiteke izan zuzenbidezko aterabidea. Bestalde nabari da «euskara XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa» izanen dela, Euskal Herrian lehentasuna lortzen badu, legez ezin bada bederen hiztunen borondatez. Une eta gune batzutan euskarak izan behar du hizkuntza nagusia. Hortarako aipatzen da hizkuntzen arteko konpartimentazioa (Mikel Zalbide) eta euskararen aldeko «diglosia», diglosia funtzionala bistan da eta ez diglosia menperatzailea.

Euskararen aldeko lehentasuna errazki ezar daiteke ikastetxeetan, %60 eredu berriarekin, ikaslegoa, soziologoien hiztegiaren arabera, «publiko kar-

tzelatua» baita. Bai eta ere neurri ahulagoan administrazio publikoan botere politikoaren esku den eremua delakotz. Malgutasun handiagoz jokatu behar da bizitza sozioekonomikoan, eremu pribatua baita, hain zuzen askatasunaren eremua. Altaba nabari da eremu hau dela erabakigarriena euskararentzat. Kontsumoaren gaian sartu aurretik, gogoeta sakondu behar genuke legezko estragia ezberdinetaz.

3. HIZKUNTZA ZUZENBIDE KONPARAGARRIA

Gai hau lantzeko Kanada behatoki bikaina da, hango legedietan Quebecoko monoglosia eta Kanadako diglosia borrokan baitaude.

Kanadako hizkuntza legeria elebiduna

Alabaina Kanadako federazioan, 1967ko Bitainiar Ipar Amerikako Legearen arabera, «ingeleza eta frantsesa hizkuntza ofizialak dira», ingeleza federazio osoan hitzegiten dena eta frantsesa gehienik Quebecen eta Akadian (Nouveau Brunswick). Frantsesedun komunitateak badira ere bereziki Ontario eta Albertako herrialdeetan. Hamar urtetarik egiten den erroldak aspaldidanik erakusten zuen inglofonoen proportzioa gora zoala eta frankofonoena beti gain behera. Hain zuzen hori zen Quebecoko alderdi soberanistaren argudio nagusi bat. 1963an parlamentu federalak Errege Komisio bat izendatu zuen, Lorandea-Dunton Komisioa, inkesta bat egiteko elebitasunaz eta kulkurbitasunaz.

(Bilinguisme–biculturalisme) «B-B Txostena» famatua zabaldu ondoren, Pierre-Elliott Trudeau lehen ministroak Hizkuntza Ofizialen Legea bozkarazi zuen 1969an. «Ingelesa eta frantsesa dira Kanadako estatu federalaren hizkuntza ofizialak». Ondorioz herritar guztiek eskubidea dute beren hizkuntzan zerbitzuak erdiesteko administrazio federalean bai eta ere «Koroaren sozietateetan», Air Canada, Radio Canada eta beste. Estatuko eta herrialdeetako legeak bi hizkuntzetan idatziko dira, biek elkarrekin indar juridikoa oinarritzen dutelarik. Bi hizkuntzak erabilgarri dira auzitegi federaletan. Eskualde elebidunetan (Ottawa aldean, Montreal hirian eta Nouveau Brunswick probintzian) funtzionario federalak bi hizkuntzetan lan egiteko gai izan behar dute. Kanada osoan funtzionario lan postuen perfilak definituak dira, frantsesak, ingelesak edo elebidunak.

Hizkuntza Ofizialen Komisioa antolatu da legearen aplikatzeko, inkerketak eginez, proposamenak adieraziz eta herritarren pleinuak entzunez. Ohargarri da legea administrazio publiko federalean mugatzen dela. Alabaina kultura, irakaskuntza, lan mundua eta beste, probintzia bakoitzaren eskuduntza daude. Gerorago bere gerizapean hartu zituen Quebecen kanpoko eskola frantsesak. 1982an Konstituzioa Londresetik Ottawara herriratu zelarik, Giza

Eskubideen Karta gehitu zioten. Ondorioz norbanakoen adierazpen askatasunaren izenean Korte Gorenak erabakiak hartzen ditu herrialdeetako hizkuntza politikiei buruz.

Oro har, 2002ko inkestaren arabera lege federala gehiago handi batek baikortzat hartzen du. %86 lanpostu elebidunetan arduradun elebidunak daude. Beraz administrazio zerbitzuak eskuragarriak dira ororentzat. Dena dela administrazioaren eremua mugatua denez, eguneroko erabileran eta bizitza sozioekonomikoan ingelesa aurrera doa eta frantsesa atzera.

Quebecoko hizkuntza legeria elebakarra

Gertatzen dena da elebitasunak ez duela hizkuntz borroka aldatzen, ezitzen baizik. Hori ikustearekin, Quebec herrialdeak bere hizkuntza inkesta egin zuen, Jean-Denis Gendron zuzendari. Gendron Txostenak erakutsi zuen frantsesa gutxitua zela lurralde frantsesduneari ere eta ingelesa nagusitzen ari zela hirietan, lantegietan, zerbitzu publikoetan.

Gauzak errotoz aldatu ziren 1976an René Lévesque-n alderdi independentistak hauteskundeak irabazi zituelarik. Ondorengo urtean bozkarazi zuen 101. legea. Frantses hizkuntzaren lege nagusia elebakartasunaren legea da. Lehen kapituluko artikulua bakarrean irakurtzen da: Frantsesa da Quebecoko hizkuntza ofiziala. Eta bigarren kapituluan agertzen dira hiztunen eskubideak: herritar orok eskubidea dauka frantsesetik komunikatzeko, administrazioarekin, biltzarretan, lanean, kontsumitzean, ikaskuntzan.

Herri hizkuntzaren ofizialtasuna eta hiztunen eskubideak finkatu ondoren legeak erabakiak agertzen ditu gizarteko alor guztietan. Frantses Hizkuntzaren Bulegoa eraiki zuen, behar zen dirutzarekin, legea berehala aplikatzeko.

Kapitulu eraginkorra seigarrena izan zen. Atalburua Enpresen frantseseta. Sei hilabete barne enpresa guzietan frantsesetik programa antolatu behar zuten, eta elkarte bat bildu, nagusiak eta langileak barne, hizkuntza egoera aztertzeko eta frantsesetik estrategia eramateko: hizkuntza ofizialaren ikaskuntza enpleguaren, frantsesaren erabilera lanean, idazki teknikoetan, iragarkietan, publizitatean.

Bulegoak eskaintzen zuen diru laguntza eta laguntza teknikoa, aurrerapena ikuskatuz. Eta helburuak erdietsi ondoren frantsesetik agiri enpresari ematen dio. Esan dezakegu 10 urteko epean Quebec herrialdeko enpresa guzietan frantsesetik direla. Zailtasun eta gataska zenbait gora behera, baina harrigarriko arakastarekin.

Beste adibide bat: kanpoko afitxek eta publizitateek frantsesetik bakarrik agertu behar zuten, orotan, auzo inglofonoetan ere. Erradikalismo hori azkenean frantsesetik lege nagusiaren aurka itzuli zen. 1988an herritar batek auzia

eraman zuen Korte Gorenera norbanako adierazpen eskubidearen izenean. Eta irabazi. Quebeceko gobernuak 5 urteren luzamena erdietsi zuen eta 1993an, auzia trenkatu zuen 89. legearen bitartez: idazki publiko elebidunak onargarri dira frantsesezko testuak espazio handiagoa betetzen badu, 2 herenen heinean. Molde horretan publizitatearen legeak denbora berean frantsesaren nagusitasuna adierazten zuen, bai eta norbanakoen edierazpen eskubidea errespetatzen, elebakartasuna baztertuz.

Konparaketa juridiko honek erakusten du hizkuntza lege elebidunak ez duela borroka amaitzen. Aldiz hizkuntza lege elebakarra lagungarri da hizkuntza ahulagoaren zaintzeko, hain zuzen gune batean gehiengoan ezarriz, gunea mugatua izanikan ere.

4. HIZKUNTZA LEGE BATEN EZAUGARRIAK

Hizkuntza legeak konparatzen direlarik, osagai berdintsuak aurkitzen dira: hizkuntzaren estatusa, hiztunen eskubideak, komunikazio eremuetako arauak, aplikazio egitaraua, ondorioen neurketa. Zehastasunak hizkuntza legearen bost zati hauei buruz.

1. zatia: Hizkuntzaren estatusa

Hizkuntza baten estatusa definitzeko hiru kontzeptu erabiltzen dira: berezkotasuna, ofizialtasuna eta bizindarra.

Berezkotasuna aipatzen da lurralde bateko hiztunek hizkuntza bat berea dela erraten dutelarik. Adibidez Euskal Herriaren berezko hizkuntza euskara da. Kontzeptua definitu nahi delarik zailatasun asko sortzen dira. Batzuek historiari ematen diote garrantzia. Beste batzuek psikolinguistikari (gehienen ama hizkuntza) edo soziolinguistikari (gizartean gehien erabilia den hizkuntza). Definizio geografikoa da argiena: lurraldean baizik hitz egiten ez den hizkuntza.

Frantziako Konstituzioak 2008ko emendakinean «eskualde hizkuntzen» kontzeptua erabiltzen du. INSEE erakundearen definizioa da: «Errepublikaren lurralde zati batean hiztorian zehar erabili diren hizkuntzak». Frantziako ondarean dauden hizkuntzak lurraldetasunari eta historiari lotuak dira.

Ofizialtasuna aipatzen dugularik estatus juridikoaz ari gara. Baina hitza esanahi-askotakoa da. Espainian gaztelania Estatu hizkuntza da herritar orok ikasteko eginbeharra dutena eta erabiltzeko eskubidea. Autonomia-erkidegoetako berezko hizkuntzak ere ofizialak izan daitezke estatutuaren bidez. Koofizialtasunaren kontzeptua erabiltzen da lurralde batean bi hizkuntza ofizial daudelarik.

Ofizialtasuna ez da aski hizkuntza baten iraupena segurtatzeko. Adibidez Afrikan zehar hizkuntza etniko asko daude ofizialak eta nazionalak. Gauza bera Ameriketako hizkuntza etnikoentzat, asko desagertzeko zorian baitira eremu zabaleko hizkuntzen menpean, ingelesa, frantsesa, gaztelania, portugesa. Orduan bi kontzeptu berri erabiltzen dira hizkuntzaren osasuna eta hizkuntza-komunitatearen (mintzakidegoaren) bizindarra.

Hizkuntza bat osasunean da funtzio asko betetzen dituelarik, familian, irakaskuntzan, administrazioan, bizitza sozio-ekonomikoan, kulturgintzan, paisaia osoan. Aldiz hizkuntza ahula gizarte txoko batean mugatzen da adibidez etxean eta lagunartean.

Mintzakidegoaren bizindarra neurtzeko parametro asko erabiltzen dira: estatus ekonomikoa eta juridikoa, demografia, sostengu instituzionala administrazioan, hedabideetan, irakaskuntzan. Parametro subjektiboak ere kontutan hartzekoak dira hala nola hiztunen atxikimendua eta gizarteak hizkuntzari ematen dion prestigioa.

2. zatia: Hiztunen eskubideak

Hizkuntza politikaren iturburuan daude hiztunen eskubideak. Normalean eskubide kolektiboak dira, mintzakidego osoarenak. Gehienik zerrendatzen diren eskubideak irakaskuntzari, komunikazioari eta kulturari buruzkoak dira, helburutzat hartuz hizkuntzaren transmisioa, erabilera eta hobekuntza.

Frantzian gertatzen dena da, konstituzioak ez dituela onartzen hizkuntza komunitateak, ez eta ere orokorki gutxiengoak, errepublikaren batasunaren izenean. Orduan legearen abiapundua norbanako eskubideetan dago. Estatu Kontseiluak (1994), bai eta ere Konstituzio Kontseiluak (1999), eskualde hizkuntzei buruz aipatzen dute 1879ko aitortpenaren 11. artikulua: «Herritar orok, badu hitz egiteko, idazteko eta inprimatzeko askatasuna». Ezberdintasuna da eskubide kolektiboek berehala sortzen dituztela botere publikoaren eginbideak. Aldiz norbanakoen adierazpen askatasunak agintearen eginbideak sortzen du, norbanakoek eskatzen duten neurrian.

Herri hizkuntzen lekua 11. artikulua eta 2. artikuluen artean kokatzen da. Aterabidea herritarren eskaeran dago. Eskaera nahiko handia delarik, legeak edo araudiak aterabide bat finkatzen du. Hori gertatu da hezkuntzan, hedabideetan, tokiko administrazioan ere. Adibidez, gobernuak Europako hizkuntza gutunean izenpetu zituen 39 arauak onargarriak dira eta berehala aplikagarriak. Bestalde Pirinio Atlantikoetako prefetak eta Euskararen erakunde-buruak gutun bat igorri diete udaletxei elebitasuna baimentzen duena. Halere gaurko egoeran, hiztunak etengabeko militantziara kondenatuak dira. Egoera hau ez da normala. Hizkuntza legea da aterabide demokratiko bakarra, hiztunen eskubideak onartzeko eta zaintzeko.

3. zatia: Komunikazio eremuetako arauak

Botere publikoak bere eginbidea betetzeko arauak definitu behar ditu hizkuntzaren erabilera normala antolatzeko komunikazio alor guztietan: irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, bizitza sozio-ekonomikoan eta kulturgintzan. Bizitza sozio-ekonomikoan badaude azpi-atal batzu: lan-mundua (produktuak eta zerbitzuak ekoizteko), saltokiak eta zerbitzu zentroak (ondasunak banatzeko), hizkuntza paisaia (publizitatearen eta seinaletikaren bidetik).

Arau hauek baliabideak eskatzen dituzte diru laguntzak eta ekintzaileak. Baliabideen banaketak adierazten du nolakoa den botere publikoaren egiazko nahikundea, epela ala indartsua. Gainera baldintzatzen dute neurri batean hizkuntza antolaketaren abiadura.

Dena egitekoa delakotz urraspideak definitu behar dira. Nondik hasi behar da? Lehentasunak finkatu behar dira ikusiz zein urratsek zein urrats baldintzatzen duen. Orokorki erabilerak gaitasuna suposatzen du, baina komunikazio eremuetan zein dira baldintzatzaileenak? Nahitaez hautuak egingen dira, huts egiteko arriskuarekin.

4. zatia: Aplikazioaren egitaraua

Arauak ezin dira berehala gauzatu. Progresiboki jokatu behar da epeak finkatuz. Bi estrategia erabiltzen dira: egitaraua edo bide-orria. Egitarauan epeak egutegi batean sartzen dira. Quebecen 7 urte finkatu ziren 50 langilez goragoko enpresak frantsezteko eta 10 urte hizkuntz-paisaia frantsezteko. Araberako egutegi zabalak aurkitzen ditugu euskalduntze egitarauetan. Horrelako programazio baten baldintza da botere publikoak urraspide osoa kontrolatzen duela.

Frantzian botere publikoaren ekintzak suposatzen du norbanakoen eskaera. Hiru urratseko urraspide batean gara: adierazpen askatasunaren aitortpena, hiltunen eskaera, araberako hizkuntza politika. Bigarren urratsa ez da botere publikoaren esku. Egitarau egutegiduna ezin da. Kasu hauetan bide-orria erabiltzen da. Bide orrian helburuak finkatzen dira bai eta eperik gabeko urraspidea, norabideak, lan ildoak eta abar. Bainan egutegi zehatzik gabe. Lehen urratsa bete ondoren bigarrenari lotuko gara eta abar. Kasu honetan hiltunen motibazioa da baldintza nagusia. Iparraldeko hizkuntza politika proiektua bide-orri bat da. Motibazio kolektiboa garatuko den neurrian bide-orritik egutegira iragan daiteke, jadanik irakakuntzan gertatzen den bezala.

5. zatia: Ondorioen neurketa

Hizkuntza politikan, egitaraua ala bide-orria erabil, noizean behin ondorioak neurtu behar dira, hain zuzen progresibotasuna egiaztatzeko. Beraz hizkuntza politikak eskatzen du behatoki bat eta pizgarri batzu.

Behatokiak aitzinamendua (edo gibelapena) objektiboki neurtu behar du eta proposapenak egin ondorioak hobetzeko. Baina ekintzaileen motibapena ere nolazbait hazi behar da. Hemen ere, beste alor askotan bezala, Skinner-en baldintzamendu eraginkorra baliagarria da. Pizgarriek aitzinamendua baldintzaten dute, ahalaz pizgarri baikorrak (zigilua edo goresmen agiriak, diru laguntzak eta beste), ezin bestean pizgarri ezkorrak, molde askotako zigorrak, nola gaitzespen sinbolikoak hala gaztigu judizialak.

Ez zaio legeari eskatu behar ematen ahal duena baino gehiago. Legeak hiltunen motibazio baikorra suposatzen du.

5. KONTSUMO LEGEAREN GARRANTZIA

Erabilera da erabakigarria

«Euskara 21» gogoetaldiaren helburua da orain arteko hizkuntza politika aztertzea, geroari buruz proposamenak egiteko. Orain arteko aitzinemendu nabariak euskararen irakaskuntzan dira. Beraz gero eta gehiago dira hiztun gazteak, gai direnak euskaraz mintzatzeko, eskolaren bitartez. Gertatzen dena da euskaldun gazteak hiritarrak direla eta aukera gutxi dutela euskaraz ari-itzeko. Altaba hizkuntzaren osasuna erabileran dago.

Bereziki eguneroko erabileran

Eukararen aitzinamenduak arrakasta handia egin du irakaskuntzan, administrazio publikoan, hedabideetan eta kultur gintzan. Eremu horiek gehiago dira botere publikoaren kontrol-pean, diru publikoaren beharretan baitira. Baina hiztunei ez diete hitz egiteko aukera askorik ematen. Administrazioekin ez dugu harreman handirik. Hedabideak isilik entzuten eta ikusten dira. Kultur ekintzak zoragarriak dira. Halere hedabideekin bezala hiztunak pasibo daude.

Euskara indartsu izanen da bizitza sozio-ekonomikoan sartuko den neurrian, lan munduan, saltegiatan, zerbitzu zentroetan. Hots ekoizpen eta kontsumo guneetan. Erran dezakegu kontsumoa hizkuntza politikaren bide-kurutzean dela: eguneroko erabileraren alorra baita, bizitza osoa hartzen duen eremua.

Kontsumoaren eremu ezberdinak

Kontsumoak ekoizpena baldintzaten du. Eta alderantziz. Produktuak aurkezteko erabiltzen den hizkuntza (adibidez etiketetan), gero erabiliko

da saltzailearen eta eroslearen artean. Gauza nabariago da zerbitzuetan. Nola ibilgailuetan hala osasun zerbitzuetan edo lanpostu bat bilatzen delarik, hizkuntza mailan eskaintzak sustatzen du eskaera. Publikoaren harrera euskaraz egiten bada, erabiltzaileak euskaraz adieraziko ditu bere beharrak.

Kontsumoak baldintzatzen du neurri handi batean kizkuntzaren paisaia. Hor ditugu begien aitzinean enpresen izenak eta logoak, produktoen etiketak, zerbitzuei buruzko argibideak eta kontsumoa norabidetzen duten publizitatea. Euskarari ematen zaion tokiaren araberako euskaltasuna dugu agerian: gutxienez estatu hizkuntzarekin toki berdina, ahalaz berezko hizkuntzak hartze luken lehentasuna.

Hiztunen eskubideak

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak daude heien aldeko hizkuntza politikaren abiapunduan. Eskubideak zehazterakoan azpimarratu behar genuke gutxienerako baldintza da hizkuntza ofizilen arteko berdintasuna eta ahalaz berezko hizkuntzaren lehentasuna, bereziki arriskuan den neurrian.

Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubidea dute bi hizkuntza ofiziale-tan argibideak lortzea nola idatzizko argibideak hala entzuten direnak. Publikoari harrera ematen dioten zerbitzuetan, etortzen denak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Estatu hizkuntzaren nagusitasuna kontuan hartuz, euskaren erabiltzeko ahalmena nolazbait azpimarratuko da.

Lehentasun estrategikoak

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak betetzeko eginbideak eskatuko zaizkie erosle eta baliatzaile asko dituzten enpresa, erakunde eta egitura handiei. Alor estrategikoenak dira komunikazioa, energia, garraioa, salerospenak, finantza, etxebizitza. Alor horietan diharduten egiturak dira eraginkorrenak: alde batetik eginbeharrak betetzeko ahalmen gehiago dute eta bestalde, kontsumo harremanak ugari direlarik, aukera asko eman dezakete euskara erabiltzeko. Zuzendaritzak, sindikatuak eta kontsumitzaileen elkarteek hitzartu behar lukete euskarari lehentasuna emateko, erosleen hizkuntza askatasuna errespetatuz.

Maiz gertatzen dena da garrantzizko egitura horiek harremanak dituztela botere publikoarekin: administrazioen menean diren zerbitzuak, legez zuzenduak direnak edo diru laguntza publikoaz baliatzen direnak. Ordainez legearen errespetu handiagoa erakutsi behar lukete.

Hizkuntza politikaren progresibotasuna

Hizkuntza politikak egitaraua suposatzen du. Egitura bakoitzak epeak finkatu behar ditu. Egutegiak aitzinamendua akulatzen du. Baina epeak definitzerakoan gauza asko kontuan hartu behar dira eta lehenik ingurumen sozio-linguistikoa. Gune euskaldunetan asma daiteke motibazioak baikorrago direla eta epeak laburrago izan daitezkeela. Halere euskarak borroka hiriguneetan irabazi behar du, hots gune erdaldunetan, beharrez epeak luzatuz.

Merkataritzak bi ezaugarri baditu, ez baitira euskararen aldekoak: globalizazioa eta errentagarritasuna. Globalizazioaren eraginez, hemen erosten ditugun salgai asko kanpoan ekoiztuak dira eta hemengo ekoizpen asko kanpoan kontsumitzen dira. Legearen indarra gure lurraldean mugatzen denez hizkuntza politikaren arauak ezin dira errazki aplikatu. Ongi da Euskal Herriko ekoizpe- nek kanpora eraman dezaten euskaltasunaren itxura eta prestigioa. «Euskara jalgi hadi kanpora». Alderantzia zailago da. Adibidez Txinako produktoek hizkuntza askotako argibideak badituzte gaztelania barne. Banatzailei eskatzen ahal zeie euskara ere nolazbait gehi dezaten? Erantzuna ez da nabaria.

Gainera bigarren zailatasun bat agertzen da, errentagarritasuna. Elebitasunak kostu bat badu, produktoaren prezioa goratzen duena. Baina, bestalde, produktoen itxura euskaldun- duz, erosle euskaldunaren gogo ona eragin lezake. Froga bat gehiago hizkuntza politikan malgutasunez jokatu behar dela.

Laburbilduz

Kontsumoaren eta zerbitzuen alorreko hizkuntza politikaren neurketak garrantzi handia dauka. Ondoriak neurtuz, euskararen osasuna eta heldutasuna neurtzen ditugu, hizkuntzaren egunerokotasuna neurtzen baitugu. Alabaina eremu pribatuko jende helduen erabilera da egiazko erizpidea. Irakaskuntza gehien bat haurren eta gaztetxo- en mundua da. Gaitasuna beharrezkoa da. Ikusi behar da zer eragin duen eskolatik kanpo. Administrazioa eremu berezia da, botere publikoaren menpean dagoena. Ez da erabilera librearen neurgailu ona. Ikusi dugu hedabideek eta kulturgintzak ez dutela zuzenean mintzamen- a bultzatzen. Eremu guztiek bat bestea baldintzatzen dute. Halere kontsumoan eta zerbitzuetan gehiago agertzen da zein den euskararen lekua, etxe- inguruan eta gizarte zabalean.

Bidenabarreko gogoeta

Elebakartasuna eta elebitasunaren arteko eztabaidan doi bat sartu gara. Beste eztabaida bat bada legalisten eta boluntaristen artekoa. Legalistek diote Estatuaren gain dela arriskuan den hizkuntza zaintzea eta ofizialtasuna beha-

rezkoa dela. Legeak ez badu euskalduntzen, egin beste lege bat eta ofizialtasunik ez bada beste gutzia iruzurra da. Erreferentziak dira Quebec, Katalunia, Israel.

Boluntaristek diote euskarak milaka urte iraun duela legerik gabe. Legea zertarako? Ikus zer gertatu den Irlandan. Hitzunen gain da hizkuntza zaintzea. Suisarrek diote: «Hizkuntza legerik hoberena legerik eza da».

Legalisten eta boluntaristen artean bide zuzena bien artekoa da. Legeari eskatu behar zaio eman dezakena: eskola bidezko transmisioa, erabilera publikoaren eskaintza zabala eta hizkuntzaren kalitatea hobetzeko baliabideak. Euskararen aldeko legeak guzti hau egitera lehiatu dira. Eta elebidunak sortzen dituzte, beraz hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko ahalmena eta askatasuna. Zein hizkuntza erabil, hori hitzunen motibazioaren gain da.

Azken hitza elkarlana da, elkarlan zabalena, legearen aurauak eta gizartearen nahia uztartuko dituena. Hizkuntzen arteko berdintasuna errespetatuz, euskaldunen eta erdaldunen arteko bizikidetzara erakitzen da. Bizikidetzaren bidez, mintzaira askatasuna euskararen alde itzul liteke. Botere publikoaren eta euskalgintza elkarten erantzukizuna da elkarrekin diharduteko euskararen gogoia sustatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Euskararen oinarritzko legea, euskararen erabilpena arautzeko (1982).
 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren legea (2003).
 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua (2003).
 France: Loi relative à l'emploi de la langue française (Loi Toubon, 1994).
 Conseil constitutionnel, décision du 15 juin 1999 sur la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires.
 Canada: Loi sur les langues officielles (1969).
 Québec: La charte de la langue française, (Loi 101, 1977).
 Euskararen Aholku Batzordea: XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak (*Euskara* 21, 2008).